



eathink2015.org/es

euskalfondoa.org



## EATHINK BOLUNTARIOENTZAKO IKASTAROA

Azaroaren 5, 12 eta 19an

**Atzerrian bizi edo ibili zara eta zure esperientzia partekatu nahi duzu?**  
**Zuk ikusi eta bizitakoa euskal gazteek duten munduaren ikuspegia aldatzeko**  
**baliagarria izan daitekeela uste duzu?**  
**Garapenerako Hezkuntza proiektu baten parte izan nahi duzu?**

**Euskal Fondoak kudeatutako EAThink “bertokoa jan, mundua buruan”**  
**proiektuak aukera paregabea eskaintzen dizu!!**

2016-2017 ikasturtean zehar LH eta DBHko ikasgeletan hainbat tailer eskainiko ditugu eta, horretarako, atzerriko errealitatea ezagutzen duten gazte boluntarioen laguntza behar dugu.

### **Baina... zer da EAThink proiektua?**

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako **ikasleen artean giza garapen global jasangarriaren arloan jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa sustatu nahi duen proiektua** da, bereziki, gaur egungo elikadura ereduak sortzen dituen interdependentzietan, janaria ekoizteko sistema jasangarriari eta maila txikiko nekazaritzari arreta jarri. Europar Batasunak babesturiko proiektua da eta 12 herrialde ari gara jarrera eta konpromiso hau sustatzen elkarlanean.

### **Zer eskaintzen da?**

**Euren atzerriko esperientzia trukatu nahi duten gazteei zuzenduriko dohaineko ikastaro bat** eta ikastaroan zehar ikastetxeetan antolatzen diren tailer parte-hartzaile eta ekintzaileetan parte hartzeko aukera.

### **Nork hartu dezake parte?**

18-29 urteko gazteak, atzerrian bizi izan direnak edo atzerrira bidaiatu dutenak, gureak ez diren bizimodu eta errealitateak ezagutu dituztenak.

### **Noiz eta non izango da?**

3 larunbateko iraupena izango du: **azaroaren 5, 12 eta 19an Donostiako Kutxa Ekogunean, 10:00etatik 14:00etara**. Horretaz gain, ikaskideekin batera bazkaltzeko dohaineko aukera emango da.

### **Zertan da ikastaroa?**

Bertan, gaian adituak diren profesionalen laguntzaz honako konpetentziak jorratuko dira:

- Garapena kontzeptuari buruz hausnartuko da, giza eta ingurugiro faktoreak gehitzearen beharra landuz.
- Gaur egun indarrean dagoen elikadura ereduak sortutako interdependentzia globalaren jatorri eta ondorioak ezagutuko dira, elikagaiak ekoizteko alternatiba jasangarriak identifikatu eta eredu jasangarrien sustapenak giza garapenari dakartzkion ondorio onuragarriak landuko dira.
- Parte-hartzaile bakoitzak atzerrian izandako esperientzia ardatz hartuta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa sustatzeko dinamikak sortuko dira.

Ikastaroan izen emate eta parte hartzeak **ez dizu inolako kostu ekonomikorik suposatuko!!** Ikastarora joateko bidai eta dietak ere EAThink proiektuaren esku joango dira (kontsultatu guri baldintzak).



Europar Batasunak lagundutako proiektua



[eathink2015.org/es](http://eathink2015.org/es)

[euskalfondoa.org](http://euskalfondoa.org)



**Animatuko al zinateke doako ikastaro baten bidez EAThink proiektuaren baloreen inguruan zure ezagutza handitu eta zure atzerriko esperientzia euskal ikasleei zuzenduko zaien tailer baten baitan partekatzeko?**

**Zergatik ez pasa ekintzara eta zure ekarpena egin?**

**Zer gehiago behar duzu ikastaro honetan izen emateko?**

**Jarri zaitez gurekin kontaktuan lehenbailehen [eathink2015@euskalfondoa.org](mailto:eathink2015@euskalfondoa.org) helbidera idatziz, izen emateko** edota edozein zalantza sortzen bazaizu.

EAThink proiektuaren ekimen guztiak gure webgunean kuxkuxeatu ditzakezu edota gure Facebook eta Twitter kontuak jarraituz.

Webgunea: [www.eathink2015.org/es](http://www.eathink2015.org/es)

Facebook: [EAThink2015 - Basque Country](#)

Twitter: [@EAThink2015 Eus](#)

Gazte boluntarioen aukeraketan bizi izandako atzerriko esperientzia eta ikastetxeetan garatuko diren EAThink tailerretan parte hartzeko prestutasuna baloratuko dira.

**Animatu! Zure zain gaude!**



Europar Batasunak lagundutako proiektua



eathink2015.org/es

euskalfondoa.org



## ERANSKINA: ESKAERA ORRIA

Boluntarioentzako EAThink ikastaroa  
Urriak 29, azaroak 5 eta azaroak 12  
Kutxa Ekogunean

<b>Izen-abizenak:</b>	
Telefonoa:	
Emaila:	
////////////////////////////////////	
Jaiotze data:	
Bizi zaren udalerria:	
Ikasketak:	
//////////////////////////////////// ////////////////////////////////////	
<b>Atzerrian bizi izan zara? Zer egin duzu bertan?</b>	
Zure esperientzia ikastetxeetan azaltzeko prest al zaude? Zergatik?	
////////////////////////////////////	
<b>Data eta sinadura:</b>	
<input type="checkbox"/> Deialdiaren oinarriak irakurri eta baldintzak onartzen ditudala baieztatzen dut.	

Izen emate orria [eathink2015@euskalfondoa.org](mailto:eathink2015@euskalfondoa.org) helbidera bidali.



Europar Batasunak lagundutako proiektua